# 7

# KAPITAL SOZIALA

## CAPITAL SOCIAL

**Imanol Zubero Beascoechea (*)**

(*) **Soziologia saileko irakasle titularra. Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).** Profesor titular del Departamento de Sociología. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Universidad del País Vasco (UPV).

# ÍNDICE


1. CAPITAL SOCIAL: EL CONCEPTO Y SU MEDICIÓN

2. EL CAPITAL SOCIAL EN PERSPECTIVA COMPARADA

3. EL CAPITAL SOCIAL EN LA C.A. DE EUSKADI

   3.1. Tamaño y características de las redes sociales
   3.2. Confianza y corrupción
   3.3. Ayuda, reciprocidad y cooperación
   3.4. Participación socio-política y asociacionismo
   3.5. Sentimientos de cohesión, seguridad, felicidad y salud

4. CONCLUSIONES

BIBLIOGRAFÍA


# AURKIBIDEA


1. KAPITAL SOZIALA: KONTZEPTUA ETA NEURKETA

2. KAPITAL SOZIALA IKUSPEGI ERKATUAN

3. KAPITAL SOZIALA EUSKAL AEn

   3.1. Sare sozialen tamaina eta ezaugarriak
   3.2. Konfiantza eta ustelkeria
   3.3. Laguntza, elkarrekikotasuna eta lankidetza
   3.4. Parte hartze soziopolitikoa eta elkartegintza
   3.5. Kohesio, segurtasun, zoriontasun eta osasun sentimenduak

4. ONDORIOAK

BIBLIOGRAFIA

## 1. CAPITAL SOCIAL: EL CONCEPTO Y SU MEDICIÓN

El concepto de «capital social» y las temáticas y programas de investigación asociadas al mismo se han convertido en uno de los más exitosos de entre todos los conceptos elaborados por las ciencias sociales. Pero también es uno de los conceptos más controvertidos. Este carácter de concepto discutido tiene que ver con los distintos antecedentes e itinerarios intelectuales a los que puede remitirse (Portes, 2000; Farr, 2004; Ramírez, 2005; Bevort, 2007a). En efecto, no es preciso remontarse a esas cinco grandes tradiciones de la sociología económica –las representadas por Marx, Weber, Simmel, Durkheim y Bentham– que Woolcock (1988) identifica en los orígenes de la idea de capital social para reconocer la distancia teórica existente entre las dos aproximaciones contemporáneas al capital social relacionadas con las aportaciones de Bourdieu y Coleman, por una parte, y de Putnam, por otra. Mientras que los primeros analizan el capital social como un recurso que los individuos utilizan conscientemente, desde una perspectiva estratégica racional, con el fin de conseguir beneficios tangibles para sí mismos o para sus familias (de manera que los lazos comunitarios son importantes en la medida en que reportan beneficios a los individuos), Putnam considera el capital social como un recurso o un atributo de las propias comunidades. A partir de aquí, las diferencias entre las dos perspectivas no dejan de hacerse notar: más individualista, competitiva e instrumental la una; más comunitaria, cooperativa y culturalista la otra.

Y aún podríamos traer a colación otra categorización que, al distinguir entre los niveles «micro» y «macro» del capital social (Figura 1), aproxima a los antes «enfrentados» Coleman y Putnam, situando a ambos en el espacio de la aproximación micro al concebir preferentemente el capital social como relaciones entre individuos y grupos, frente a autores como Mancur Olson, Douglas North o Eleanor Ostrom, que mantienen una interpretación del capital social que incluye el entorno social y político, las instituciones y el régimen de libertades como factores determinantes a la hora de explicar cómo el capital social es producido, acumulado y utilizado por los individuos y los grupos (Jordana, 2000).

En todo caso, más allá de estas discusiones teóricas –en absoluto irrelevantes, pero que no vamos a abordar en el presente trabajo– lo cierto es que se ha ido produciendo una confluencia práctica entre las diversas líneas de investigación sobre capital social, conformando una perspectiva teóricamente ecléctica que busca, sobre todo, un enfoque aplicado. Desde esta perspectiva se plantea que el concepto de capital social puede ser considerado como una «metáfora» que ilumina las razones del éxito o de la ventaja de ciertos individuos o grupos sobre otros en función de sus mejores conexiones (Burt, 2001: 31-32), o se resumen los debates sobre el capital

## 1. KAPITAL SOZIALA: KONTZEPTUA ETA NEURKETA

«Kapital sozialaren» kontzeptua, eta berari elkartutako gaiak eta ikerkuntza programak, gizarte zientziek asmatutako kontzeptuen artean arrakastatsuenetako bat da. Baina eztabaida asko sortzen duen kontzeptua da halaber. Eztabaidatua izate horrek zerikusia dauka bere aitzindari eta ibilbide intelektualekin (Portes, 2000; Farr, 2004; Ramírez, 2005; Bevort, 2007a). Hain zuzen ere, ez da beharrezkoa soziologia ekonomikoaren bost tradizio nagusiak aztertzea (Marx, Weber, Simmel, Durkheim eta Benthamek buru dituztenak), nahiz eta Woolcocken arabera (1988) kapital sozialaren ideiaren jatorria haiengan dagoen, gaur egun kapital sozialaren inguruan dauden bi ikuspegi garrantzitsuenen arteko distantzia teorikoaz ohartzeko. Bi ikuspegi horiek Bourdieu eta Colemanen ekarpenen ingurukoa eta Putnamen ingurukoa dira. Lehenengo ikuspegikoen arabera, kapital soziala norbanakoek kontzienteki erabiltzen duten baliabidea da. Baliabide hori ikuspegi estrategiko arrazionalarekin erabiltzen dute pertsonek, beraientzat edo beren familientzat etekin ukigarriak lortzeko asmoz (beraz, komunitateko loturak garrantzitsuak dira norbanakoei onurak ekartzen dizkieten neurrian). Putnamen arabera, berriz, kapital soziala komunitateen baliabidea edo ezaugarria da. Hemendik aurrera, bi ikuspegien arteko ezberdintasunak nabarmenak dira: bata indibidualistagoa, lehiakorragoa eta instrumentalagoa da; eta bestea, komunitarioagoa, kooperatiboagoa eta kulturalistagoa.

Eta oraindik ere beste kategorizazio bat aipa genezake, kapital sozialaren maila «mikroa» eta «makroa» bereizten dituena (1. irudia), eta lehen elkarren aurkakoak ziren Coleman eta Putnam uztartzen dituena. Biak ikuspegi mikroan egongo lirateke teoria honen arabera, kapital soziala norbanakoen eta taldeen arteko harreman gisa ikusten dutelako. Beste autore batzuek ordea, hala nola, Mancur Olson, Douglas North edo Eleanor Ostromek, kapital sozialaz egiten duten interpretazioan ingurune soziala eta politikoa, erakundeak eta askatasunen erregimena sartzen dituzte, kapital soziala norbanakoek eta taldeek nola ekoizten, pilatzen eta erabiltzen dituzten azaltzeko orduan faktore erabakigarriak direlakoan (Jordana, 2000).

Nolanahi ere, eztabaida teoriko hauez haratago (hutsalak ez diren arren lan honetan aztertu ezin izango ditugunak), kapital sozialari buruzko ikerketa lerroen artean uztarketa praktiko bat gertatu da. Teorikoki ikuspegi eklektikoa sortu da, batez ere ikuspegi aplikatua bilatzen duena. Ikuspegi horretatik, proposatzen da kapital sozialaren kontzeptua «metaforatzat» har dezakegula, norbanako edo talde jakin batzuek beste batzuek baino arrakasta edo abantaila handiagoak izateko arrazoiak azaltzen dituena, konexio hobeak izatean oinarrituta (Burt, 2001: 31-32), edo kapital sozialari buruzko eztabaidak intuizio nagusi batekin laburbiltzen dira, azaltzen duena elka-

social en una intuición central que sostiene que la mutua benevolencia es un recurso sumamente valioso tanto para los individuos como para las sociedades (Adler & Kwon, 2002). En palabras de Gallo y Garrido (2009:7), la esencia del capital social es que se trata de «un importante recurso que poseen los individuos y las sociedades en la medida en que interactúan, y que les permite la consecución de metas o el acceso a determinados recursos, que en ausencia de esta «infraestructura» hubiera sido más difícil o imposible conseguir».

rrenganako onginahia baliabide izugarri baliotsua dela norbanakoentzat nahi gizarteentzat (Adler & Kwon, 2002). Gallo eta Garridoren hitzetan (2009:7), kapital sozialaren funtsa hau da: «baliabide garrantzitsua da, norbanakoek eta gizarteek elkarreragiten duten neurrian daukatena. Berari esker, helburuak bete ditzakete edo bitarteko jakin batzuk eskuratu, «azpiegitura» hau gabe lortzeko zailago edo ezinezko liratekeenak».

*Dimensiones del capital social* **1** ***Kapital sozialaren dimentsioak***




**Iturria: Lelkes (2010: 7).**
Fuente: Lelkes (2010: 7).

En el fondo, no estamos tan lejos de la pretensión de Coleman al proponer el concepto de capital social: desarrollar una aproximación teórica a la acción social que supere tanto la concepción «sobresocializada» del ser humano propia de la sociología (que lo concibe como un producto de la socialización, gobernado por normas sociales, reglas y obligaciones, sin motivaciones o propósitos internos que impulsen su acción) como la concepción «hiperindividualizada» propia de la economía (que concibe al ser humano como un actor orientado a la maximización utilitarista del interés propio) (Coleman, 1988: 95-97).

Como se ha señalado, «lo que atrae del concepto es esa combinación de «riqueza» o «valor» que asociamos con la idea de «capital» y la coletilla «social» que, precisamente, asociamos con algo que no es estrictamente económico» (Subirats, 2011: 15). En efecto, seguramente una de las potencialidades mayores del concepto y de la perspectiva del capital social es su capacidad para relacionar elementos y dimensiones intangibles de la vida social (confianza, valores, sentimiento de seguridad) con procesos y hechos sociales cuya materialidad y peso empírico son objeto de atención para la ciencia social aplicada: desde el desigual funcionamiento de los gobiernos regionales (Putnam, 2011 [e.o. 1993]; Mota y Subirats, 2000) hasta el desarrollo económico de las naciones (OECD, 2001), entre otras muchas líneas de investigación (Bevort, 2007b).

Funtsean, ez gaude Colemanen asmotik hain urrun, kapital sozial honen kontzeptua proposatzen duenean: gizarte ekintzarako hurbilketa teorikoa egitea, gizakiaren kontzepzio «gizarteratuegia» gainditzeko, batetik (kontzepzio hau soziologiak izaten du: gizakia gizarteratzearen produktutzat jotzen du, eta gizartearen arau eta betebeharrek gobernatua dagoela adierazten du, bere jarduna bultzatzen duen barne asmo edo motibaziok gabe), eta ekonomiaren berezko kontzepzio «hiperindibidualizatua» gainditzeko, bestetik (ekonomian gizakia bere interesak asetzeko jarduten duen izakia baita) (Coleman, 1988: 95-97).

Adierazi dugunez, «kontzeptu hau erakargarri egiten duena «aberastasuna» edo «balioa» («kapitalaren» ideiarekin lotzen duguna) eta izaera «soziala» (ekonomia hutsa ez den zerbait) lotzean datza» (Subirats, 2011: 15). Izan ere, kapital sozialaren kontzeptuaren eta ikuspegiaren potentzialitaterik handienetako bat da bizitza sozialeko osagai eta dimentsio ukiezinak (konfiantza, balioak, segurtasun sentimendua) elkartzen dituela gizarte zientzia aplikatuak behatzen dituen materialtasuna eta pisu enpirikoa dauzkaten gizarte prozesu eta egitateekin: eskualdeko gobernuen funtzionamendu ezberdinetik hasi (Putnam, 2011 [e.o. 1993]; Mota eta Subirats, 2000) eta nazioen garapen ekonomikoraino (OECD, 2001), eta beste ikerketa ildo batzuk (Bevort, 2007b).

En el caso de la Encuesta sobre Capital Social realizada por Eustat en 2007 (en adelante ECS-07), el capital social es entendido como un recurso al que se accede cuando se dispone de redes personales amplias con las que se participa activamente en los distintos ámbitos económicos y sociales, en un ambiente de confianza, lo que puede facilitar el desarrollo personal y social, así como el desarrollo económico de una sociedad. Nos encontramos, por tanto, ante una aproximación que vendría a coincidir con esa perspectiva ecléctica a la que nos hemos referido anteriormente. En concreto, en la ECS-07 el capital social se concibe como un conjunto de dimensiones de relación y participación, entre las que se encuentran: las redes sociales de familiares y amigos, la confianza en las personas y las instituciones, la participación social y la cooperación, la información y la comunicación, la cohesión y la inclusión social y la felicidad y la salud[1]. Todas estas dimensiones configuran un marco de relaciones y flujos complejo, que hemos querido representar en la Figura 2.

Eustatek 2007an kapital sozialari buruz egin zuen inkestan (aurrerantzean KSI-07), kapital soziala baliabide bat da, sare pertsonal zabalak edukitzean eskuratu ahal dena, sare horien bidez eremu ekonomiko eta sozialetan aktiboki parte hartzeko, konfiantzazko giro batean, garapen pertsonala eta soziala, baita gizarte baten garapen ekonomikoa ere, ahalbideratuz. Beraz, arestian aipatu dugun ikuspegi eklektikoarekin bat datorren hurbilketa dugu hau. Zehazki, KSI-07an kapital soziala erlazio eta parte hartze dimentsio multzoa da, besteak beste: senide eta lagunen sare sozialak, pertsonenganako eta erakundeenganako konfiantza, gizarte parte hartzea eta lankidetza, informazioa eta komunikazioa, kohesio eta inklusio soziala, eta zoriontasuna eta osasuna[1]. Dimentsio horiek guztiek erlazio eta fluxu esparru konplexua osatzen dute, 2. irudian irudikatu nahi izan duguna.

*Articulación de las distintas dimensiones del capital social en la ECS-07*

**2**

***Kapital sozialaren dimentsioen artikulazioa KSI-07an***




**Iturria: Geuk egina.**
Fuente: Elaboración propia.

[1] Una amplia y detallada información relativa a los objetivos perseguidos y a la metodología utilizada por la ECS-07 puede encontrarse en Rodríguez Marcos y García Olea (2007).

[1] KSI-07k bilatzen dituen helburuei buruzko eta erabiltzen duen metodologiari buruzko informazio zabal eta xehea aurki dezakegu hemen: Rodríguez Marcos eta García Olea (2007).

Los individuos forman parte de redes sociales, tanto próximas como amplias, en el seno de las cuales desarrollan interacciones de ayuda mutua en un clima de confianza particularizada. Estas interacciones refuerzan las redes en las que los individuos participan, y desde ellas el individuo proyecta su acción más allá de las mismas, hacia el conjunto de la sociedad participando de diversas maneras y contribuyendo a la creación de un clima de confianza generalizada e institucional que propicia las actitudes cooperativas. Esta cultura social, a su vez, revierte sobre el individuo, generando un sentimiento de seguridad, pertenencia, autonomía y bienestar, cerrando así una suerte de círculo virtuoso que continúa alimentando el capital social tanto individual como colectivo.

No podemos cerrar este apartado introductorio sin referirnos a una importante cuestión de naturaleza teórica. Se ha acusado a las principales aproximaciones al capital social de una importante inconsistencia a la hora de poder establecer direcciones de causalidad entre las distintas dimensiones o fenómenos que se analizan, hasta el punto de rayar en ocasiones la tautología (Jordana, 2000; Sobel, 2002: 140, 142; Sánchez y Pena, 2005: 142).

Más aún, diversos investigadores del capital social advierten que las teorizaciones que vinculan armónicamente confianza social, implicación en la comunidad, pertenencia a organizaciones voluntarias, confianza política y satisfacción con la democracia no han recibido más que un apoyo empírico parcial e insuficiente, al menos en el nivel individual; e incluso se afirma que numerosos trabajos concluyen que la confianza social *no* está relacionada de forma consistente con la confianza política o con la satisfacción con la democracia (Montero, Zmerli y Newton, 2008).

Atendiendo a estas advertencias, en las páginas que siguen nos fijaremos en las relaciones o asociaciones entre distintas dimensiones del capital social (por ejemplo, entre la confianza y el tamaño de las redes sociales), sin prejuzgar las posibles relaciones de causalidad entre dichas dimensiones.

Norbanakoak sare sozialen barnean daude, bai hurbilekoetan bai zabaletan, eta sare sozial horien barnean elkarrekiko laguntza elkarreraginak garatzen dira, konfiantza zehaztuko giro batean. Elkarreragin hauek norbanakoek parte hartzen duten sareak indartzen dituzte, eta haietatik abiatuz norbanakoak bere jarduna haratago proiektatzen du, gizarte osora iristeraino, zenbait modutan parte hartuz eta konfiantza orokor eta instituzionaleko giroa sortuz, eta lankidetza-jarrerak mesedetuz. Kultura sozial horrek, era berean, norbanakoarentzat onuragarria da: segurtasun, kidetasun, autonomia eta ongizate sentimenduak sortzen zaizkio. Horrela, gurpil zoro onuragarri bat ixten da, kapital soziala (norberarena nahiz kolektiboa) elikatzen segitzen duena.

Ezin dugu sarrera-atal hau itxi gai teoriko garrantzitsu bat aipatu gabe. Kapital sozialaren hurbilketa nagusiei egotzi zaie ez daukatela funtsik aztertzen diren dimentsioen edo fenomenoen artean kausalitate-norabideak finkatu ahal izateko orduan, batzuetan tautologiara iristeraino (Jordana, 2000; Sobel, 2002: 140, 142; Sánchez eta Pena, 2005: 142).

Are gehiago, kapital sozialaren hainbat ikertzailek ohartarazten dute gizarte konfiantza, komunitatean inplikatzea, erakunde boluntarioetako kide izatea, konfiantza politikoa eta demokraziarekin asebete egotea harmonikoki lotzen dituzten teorizazioek babes enpiriko partzial eta ez-nahikoa jaso dutela soilik, norbanakoaren mailan gutxienez. Gainera, baieztatu da lan askoren ondorioa dela gizarte konfiantzak *ez* daukala zuzeneko lotura sendorik konfiantza publikoarekin edo demokraziarekiko asebetetasunarekin (Montero, Zmerli eta Newton, 2008).

Ohar horiek kontuan izanik, hurrengo orrialdeetan kapital sozialaren dimentsio guztien arteko erlazioak edo zerikusiak behatuko ditugu (hala nola, sare sozialen konfiantzaren eta tamainaren artekoak), dimentsio horien arteko balizko kausalitate-erlazioak aurre-epaitu gabe.

## 2. EL CAPITAL SOCIAL EN PERSPECTIVA COMPARADA

El estudio del capital social en perspectiva comparada se ha convertido en los últimos años en uno de los campos de investigación en ciencias sociales más dinámicos y atractivos. La red de investigación «Citizenship, Involvement and Democracy» (CID), financiada en Europa por la European Science Foundation y en Estados Unidos por el Center for Democracy and Civil Society de la Universidad de Georgetown, es una de las iniciativas más destacables por sus resultados (Maloney & Roßteutscher, 2006; Montero, Font y Torcal, 2006; van Deth, Montero & Westholm 2007)[2].

En España, la Fundación BBVA (FBBVA) viene desarrollando desde hace años un programa de investigación comparada sobre el capital social en España y en la OCDE (FBBVA, 2006; Pérez García *et al*., 2008), del que se han derivado también aproximaciones sectoriales o temáticas, por ejemplo, a la aportación de las ONGs a la generación de capital social (Marcuello, 2007). Además, en colaboración con el Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas (IVIE), FBBVA se ha centrado particularmente en el estudio de las relaciones entre el crecimiento económico español y el capital social (Pérez García *et al*., 2005; FBBVA, 2007a; FBBVA 2007b). En su aproximación al capital social, los estudios de FBBVA lo consideran un «concepto multidimensional que engloba los recursos de un individuo o comunidad resultados de la confianza, la norma de reciprocidad y de la conectividad o asociacionismo social (redes y asociacionismo)» (FBBVA, 2006: 2). Los estudios sobre capital social realizados por FBBVA resultan de especial interés ya que Eustat se ha basado esencialmente en los indicadores en ellos utilizados para elaborar su encuesta, lo que en principio permite plantear comparaciones entre ambas aproximaciones (Rodríguez Marcos y García Olea, 2007: 6-7).

Si tomamos como referencia el conjunto de los países de la OCDE (Gráfico 1) el capital social per cápita de España es bajo en términos relativos, y ello a pesar del fuerte incremento experimentado por éste a partir de 1994, cuando pasa de un índice de 103,13 hasta alcanzar un valor de 918,86 en 2005 (FBBVA 2007a: 8-9; Pérez García *et al*., 2008: 54). España, caracterizada como una sociedad que combina valores altos de confianza, redes personales amplias y una muy baja pertenencia a asociaciones (FBBVA, 2006: 47), ocupaba en 2003 el puesto 20 de los 29 países de la OCDE analizados (FBBVA, 2007a: 9).

Sorprende este puesto tan bajo. Como veremos a continuación, lo cierto es que dimensiones fundamentales del capital social tales como los niveles de confianza o el tamaño de las redes sociales sitúan a España en posiciones mucho más destacadas. Pero los niveles de asociacionismo tan reducidos existentes en España tienen un fuerte efecto distorsionador sobre el índice del capital social español. Un estudio elaborado en 2007 para la Comisión Europea distingue cinco clusters o agrupaciones de países en función de sus niveles de capital social, encabezados por los países Escandinavos, Luxemburgo y Holanda. Pues bien: en este estudio España se incluye en el quinto clúster, junto con Polonia, Lituania, Estonia,

[2] En la web del proyecto europeo hay disponible abundante información: http://www.mzes.uni-mannheim.de/projekte/cid. Para conocer más sobre el desarrollo del proyecto en Estados Unidos ver: http://www.uscidsurvey.org/

## 2. KAPITAL SOZIALA IKUSPEGI ERKATUAN

Kapital sozialaren ikerkuntza, ikuspegi erkatuan, azken urteetan gizarte zientzietako ikerkuntza eremurik dinamiko eta erakargarrienetako bat bilakatu da. «Citizenship, Involvement and Democracy» (CID) ikerkuntza sarea, Europan European Science Foundationek finantzatzen duena eta Estatu Batuetan Georgetown Unibertsitateko Center for Democracy and Civil Society-k finantzatzen duena, ekimenik aipagarrienetako bat da, haren emaitzak ikusita (Maloney & Roßteutscher, 2006; Montero, Font eta Torcal, 2006; van Deth, Montero & Westholm 2007)[2].

Espainian, BBVA Fundazioak (FBBVA) azken urteetan ikerkuntza programa konparatua egiten izan du, kapital soziala Espainian eta ELGAn aztertzen duena (FBBVA, 2006; Pérez García *et al*., 2008). Hortik hurbilketa sektorial edo tematikoak ere eratorri dira, hala nola, GKEek kapital sozialaren sorrerari egindako ekarpenari egindakoa (Marcuello, 2007). Gainera, Valentziako Ikerketa Ekonomikoen Institutuarekin (IVIE) lankidetzan, FBBVAk batez ere espainiar hazkunde ekonomikoaren eta kapital sozialaren arteko harremanak aztertu ditu (Pérez García *et al*., 2005; FBBVA, 2007a; FBBVA 2007b). Kapital sozialaren hurbilketan, ikerketek eta FBBVAk honela ulertzen dute: «kontzeptu multidimentsionala da, norbanako baten edo komunitate baten baliabideak, konfiantzaren emaitzak, elkarrekikotasunaren araua eta konektibitate edo elkartegintza sozialaren araua biltzen dituena (sareak eta elkartegintza)» (FBBVA, 2006: 2). FBBVAk kapital sozialari buruz egindako azterlanak bereziki interesgarriak dira, Eustat haietan erabiltzen diren adierazleetan oinarritu baita, funtsean, inkesta egiteko orduan. Horrek printzipioz bi hurbilketen arteko konparazioak egitea ahalbideratzen du (Rodríguez Marcos eta García Olea, 2007: 6-7).

ELGAko herrialdeen multzoa erreferentzia gisa hartuz gero (1. grafikoa), Espainiako per capita kapital soziala txikia da termino erlatiboetan, nahiz eta 1994. urtetik nabarmen handitu den, 103,13ko indize batetik 918,86raino, 2005ean (FBBVA 2007a: 8-9; Pérez García *et al*., 2008: 54). Espainia balio hauek konbinatzen dituen gizartea da: konfiantza, sare pertsonal zabalak eta elkarteetako kidetasun oso txikia (FBBVA, 2006: 47). 2003. urtean, aztertutako ELGAko 29 herrialdeen artean 20.a zen (FBBVA, 2007a: 9).

Hain postu baxua izatea harrigarria da. Orain ikusiko dugunez, kapital sozialaren funtsezko zenbait dimentsiok, hala nola konfiantza mailak edo sare sozialen tamainak, Espainia postu askozaz ere altuagoetan kokatzen dute. Baina Espainian dagoen elkartegintza-maila txikiak espainiar kapital sozialaren indizea asko itxuraldatzen du. Europar Batzordearentzat 2007an egin zen azterlan batek herrialdeen bost cluster edo elkarte bereizten ditu, kapital sozialaren mailen arabera, Eskandinaviar herrialdeak, Luxemburg eta Holanda buru direla. Bada: azterlan honetan Espainia bosgarren clusterrean sartzen da, Polonia, Lituania, Estonia, Bulgaria eta Errumaniarekin batera. Halere, adierazi behar da fenomeno hau elkartee-

[2] Europako proiektuaren webgunean informazio ugari dago: http://www.mzes.uni-mannheim.de/projekte/cid. Proiektuak Ameriketako Estatu Batuetan daukan garapena hobeto jakiteko, ikusi: http://www.uscidsurvey.org/

Bulgaria y Rumanía, si bien se indica que ello puede ser debido a sus bajos niveles de participación en asociaciones. Controlada la influencia de esta variable, España podría aparecer formando parte del tercer clúster en compañía de Italia, Grecia, Malta, Chipre, Portugal y Hungría (European Commission, 2007: 39-42). La pertenencia y participación en asociaciones es el auténtico Talón de Aquiles del capital social en España (y, como veremos, también en la C.A. de Euskadi).

tako parte hartze txikiaren ondorio izan daitekeela. Aldagai honen eragina kontrolatuz gero, Espainia hirugarren clusterrean sailkatuko litzateke, Italia, Grezia, Malta, Zipre, Portugal eta Hungariarekin batera (European Commission, 2007: 39-42). Elkarteetako kide izatea eta haietan parte hartzea Espainiako kapital sozialaren punturik ahulena da (eta Euskal AErena ere bai, ikusiko dugunez).

*Capital social per cápita en los países de la OCDE, 2003 (España = 100)*

1

***ELGAko herrialdeen per capita kapital soziala, 2003 (Espainia = 100)***




**Iturria: FBBVA (2007a).**
Fuente: FBBVA (2007a).

Como decíamos, en lo que se refiere a la dimensión de la confianza, la mayoría de la población confía en las personas de su alrededor. El nivel de confianza general supera en todos los países el punto medio (5 en una escala de 0 a 10), con la excepción de Chile y Turquía, y alcanza su nivel más alto en Dinamarca (7,2), seguida del Reino Unido (6,5) y Estados Unidos (6,1). En el caso de España, el nivel de confianza general se sitúa en 5,9, igual que en Alemania y en Rusia. En el resto de países europeos, así como en Japón, Israel y México, el nivel de confianza desciende ligeramente y se sitúa entre el 5,8 y el 5,4 (FBBVA, 2006: 5-6).

Esan dugunez, konfiantzaren dimentsioari dagokionez, populaziorik gehienak inguruko pertsonengan konfiantza dauka. Konfiantza maila orokorrak herrialde guztietan erdiko puntua gainditzen du (hau da, 5aren gainetik daude, 0 eta 10 arteko eskala batean), Txile eta Turkiaren kasuan izan ezik. Mailarik altuena Danimarkak dauka (7,2), gero Erresuma Batuak (6,5) eta Estatu Batuek (6,1). Espainiaren kasuan, konfiantza orokorraren maila 5,9koa da, Alemanian eta Errusian bezala. Europako gainerako herrialdeetan, Japonian, Israelen eta Mexikon, konfiantza maila apur bat jaisten da eta 5,8 eta 5,4 artekoa da (FBBVA, 2006: 5-6).

Si nos fijamos en la confianza hacia distintas profesiones e instituciones expresada por la opinión pública española, científicos y médicos, por un lado, y ONGs por el otro, son quienes la sociedad española considera más confiables. Por el contrario, los menos confiables serían, entre las profesiones, los políticos, los religiosos, los funcionarios y los empresarios, y entre las instituciones, las empresas multinacionales y la Iglesia católica (Tabla 1).

Espainiar iritzi publikoak lanbide eta erakunde bakoitzean duen konfiantzari erreparatzen badiogu, espainiar gizartearentzat konfiantza gehien merezi dutenak zientzialariak eta medikuak dira, batetik, eta GKEak, bestetik. Aitzitik, konfiantza gutxien merezi dutenak, lanbideen artean, politikariak, erlijiosoak, funtzionarioak eta enpresaburuak dira, eta erakundeen artean, nazioarteko enpresak eta Eliza Katolikoa (1. taula).

*Niveles de confianza en España, 2006 (escala 1-10)* **1** ***Konfiantza mailak Espainian, 2006 (1-10 eskala)***

| **Konfiantza orokorrean** / Confianza en general | **5,9** |
|---|---|
| | |
| **Konfiantza lanbideengan** / Confianza en profesiones | |
| **Medikuak** / Médicos | 7,1 |
| **Epaileak** / Jueces | 5,4 |
| **Poliziakideak** / Policías | 5,6 |
| **Erlijiosoak** / Religiosos | 4,4 |
| **Maisu-maistrak** / Maestros | 6,9 |
| **Zientzialariak** / Científicos | 7,3 |
| **Funtzionarioak** / Funcionarios | 4,8 |
| **Militarrak** / Militares | 5,0 |
| **Merkatariak** / Comerciantes | 5,7 |
| **Enpresaburuak** / Empresarios | 4,9 |
| **Kazetariak** / Periodistas | 5,5 |
| **Politikariak** / Políticos | 3,7 |

| **Konfiantza erakundeengan** / Confianza en instituciones | |
|---|---|
| **Auzitegi Konstituzionala** / Tribunal Constitucional | 5,7 |
| **Justiziako auzitegiak** / Tribunales de Justicia | 5,5 |
| **Polizia** / Policía | 5,8 |
| **Ejertzitoa** / Ejército | 5,2 |
| **Gobernua** / Gobierno | 5,2 |
| **Erkidegoko gobernua** / Gobierno regional | 5,2 |
| **Parlamentua** / Parlamento | 5,4 |
| **Komunikabideak** / Medios de comunicación | 5,5 |
| **Banku zentrala** / Banco central | 5,0 |
| **Sindikatuak** / Sindicatos | 5,1 |
| **Gurutze Gorria** / Cruz Roja | 7,3 |
| **Greenpeace** / Greenpeace | 6,6 |
| **GKEak** / ONGs | 6,6 |
| **Nazio Batuak** / Naciones Unidas | 5,5 |
| **Nazioarteko enpresak** / Empresas multinacionales | 4,5 |
| **Europako Batzordea** / Comisión Europea | 5,3 |
| **Eliza Katolikoa** / Iglesia Católica | 4,6 |

**Iturria: Geuk egina, FBBVAn oinarrituta (2006).**
Fuente: Elaboración propia a partir de FBBVA (2006).

En cuanto al tamaño total de las redes personales con las que cuentan los individuos, éste oscila entre las 12 y las 22 personas, encontrándose las de mayor tamaño en Dinamarca, España (con una media de 19,8), Turquía e Israel (Gráfico 2).

Norbanakoek dauzkaten sare pertsonalen tamaina osoari dagokionez, 12 eta 22 pertsonen artekoak dira. Sarerik handienak Danimarkan, Espainian (batez beste 19,8 pertsonakoak), Turkian eta Israelen daude (2. grafikoa).




**Iturria: FBBVA (2006).**
Fuente: FBBVA (2006).

Por último, si comparamos el índice de volumen de capital social en la C.A. de Euskadi con el del conjunto de España (Gráfico 3) podemos ver que éstos han evolucionado de manera muy parecida entre 1984 y 2005, quedando nuestra comunidad al final del periodo ligeramente por debajo del índice español (907,50 versus 1.041,45). Esta distancia tiene que ver con el menor volumen del territorio de Bizkaia (907,5), ya que los de Álava y Gipuzkoa se situaban por encima de la media española (1.111,94 y 1.085,18 respectivamente) (Pérez García *et al.*, 2008: 51-56)[3].

Azkenik, Euskal AEn kapital sozialaren bolumenaren indizea Espainia osoarenarekin erkatuz gero (3. grafikoa), ikusiko dugu antzeko bilakaera izan dutela 1984 eta 2005. urteen artean. Gure erkidegoa denboraldiaren amaieran espainiar indizea baino apur bat beherago dago (907,50 versus 1.041,45). Distantzia honek zerikusia dauka Bizkaiaren tamaina txikiagoarekin (907,5), Araba eta Gipuzkoakoak espainiar batezbestekoaren gainetik baitzeuden (1.111,94 eta 1.085,18 hurrenez hurren) (Pérez García *et al.*, 2008: 51-56)[3].

[3] Al disponer de una única encuesta sobre capital social no podemos abordar, aplicado al caso vasco, debates en la línea propuesta por Putnam (1995a, 1995b, 2002) sobre el supuesto declive del capital social en Estados Unidos y, en general, en las sociedades económicamente más desarrolladas (2003). En todo caso, los datos ofrecidos por Pérez García *et al.* (2008) no apoyan, en principio, la tesis de Putnam.

[3] Kapital sozialari buruzko inkesta bakarra dagoenez gero, ezin dugu eztabaidarik aplikatu, euskal kasuan, Putnamek proposatutako ildoan (1995a, 1995b, 2002) kapital sozialaren ustezko gainbeherari buruz Ameriketako Estatu Batuetan eta, oro har, ekonomikoki garatuen dauden gizarteetan (2003). Nolanahi ere, Pérez García *et al.*en (2008) dauden datuek printzipioz ez dute babesten Putnamen tesia.

*Evolución del índice de volumen de capital social en España, en la C.A. de Euskadi y en los territorios históricos (año 1983 = 100)*

3

***Kapital sozialaren bolumenaren indizearen bilakaera Espainian, Euskal AEn eta lurralde historikoetan (1983. urtea = 100)***




**Iturria: Geuk egina, Pérez García *et al.*en (2008) oinarrituta.**
Fuente: Elaboración propia a partir de Pérez García *et al.* (2008).

# 3. EL CAPITAL SOCIAL EN LA C.A. DE EUSKADI

En este capítulo trabajaremos fundamentalmente a partir de los índices sintéticos (en una escala de 1 a 10) elaborados a partir de los datos obtenidos de la ECS-07. Se trata, por tanto, de una primera aproximación de carácter general, que no agota la rica información contenida en la encuesta.

## 3.1. Tamaño y características de las redes sociales

Como hemos señalado, el concepto de capital social hace referencia, en primer lugar, a la participación de los individuos en redes de relaciones sociales. Contar con una red social mínima constituye la condición necesaria, aunque no suficiente, para la generación de capital social. Como señalan Putnam y Goss, «la idea central de la teoría del capital social es sumamente sencilla: las redes sociales importan» (en Putnam, 2003: 13). De hecho, como veremos más adelante, el tamaño de las redes sociales de las que formamos parte aparece, por sí mismo, asociado a importantes dimensiones del capital social.

La población vasca cuenta con una media de alrededor de 22 personas (22,47 exactamente), entre familiares y amigos, que conformarían la *red amplia*, constituida por la suma de las personas que forman la unidad de convivencia familiar, así como el resto de familiares y los amigos con los que se mantiene una comunicación regular. Esta cifra media no experimenta grandes variaciones en función de variables sociodemográficas tales como el territorio de residencia, el sexo o la edad de las personas encuestadas, ni tampoco por su clase social, nivel de instrucción, idioma de encuestación o profesión. Sí encontramos diferencias en función de variables como la actividad (las y los pensionistas tienen una red amplia de 19,74 miembros, frente a los 24,14 de quienes se encuentran estudiando), el lugar de nacimiento (las personas extranjeras presentan una red amplia de 19,72 miembros), el estado civil (entre las personas viudas, separadas o divorciadas la red amplia se reduce hasta los 19,46 miembros) y, sobre todo, en función del tamaño familiar y del tipo de hogar: los hogares unipersonales tienen una red amplia de 18,66 miembros, cifra que desciende hasta los 14,77 entre quienes no viven en familia sino que tienen su residencia en establecimientos colectivos.

Si nos fijamos en la denominada *red próxima*, es decir, en la formada por la suma de familiares y amigos con los que se mantiene una relación más cercana y estrecha, ésta se reduce a una docena de miembros (12,54 exactamente). De nuevo, las distintas variables sociodemográficas influyen en un sentido parecido al caso anterior, si bien en esta ocasión es el lugar de nacimiento la más discriminante: las personas extranjeras son las que tienen una red próxima más reducida (10,20 miembros)[4].

[4] Diversos estudios realizados en Estados Unidos señalan que esta red próxima, también denominada «red de conversación nuclear» (Marsden, 1987), disminuye a medida que envejecemos, sin que existan diferencias significativas entre mujeres y hombres. Las personas con titulación universitaria tienen redes de conversación nucleares casi el doble de extensas que quienes poseen niveles de estudios inferiores (Christakis y Fowler, 2010: 32).

# 3. KAPITAL SOZIALA EUSKAL AEn

Kapitulu honetan, batez ere, indize sintetikoetan oinarrituko gara (1 eta 10 arteko eskalan), KSI-07an jasotako datuetan oinarrituta eginak. Horrenbestez, izaera orokorreko lehenengo hurbilketa bat da, inkestan dagoen informazio ugaria agortzen ez duena.

## 3.1. Sare sozialen tamaina eta ezaugarriak

Adierazi dugunez, kapital sozialaren kontzeptua, lehenik eta behin, norbanakoek gizarte harremanen sareetan duten parte hartzeari dagokio. Gutxieneko sare soziala edukitzea beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa, kapital soziala sortzeko. Putnam eta Gossek adierazten dutenez, «kapital sozialaren teoriaren oinarrizko ideia guztiz sinplea da: sare sozialak garrantzitsuak dira» (in Putnam, 2003: 13). Hain zuzen ere, aurrerago ikusiko dugunez, parte hartzen dugun sare sozialen tamaina, berez, kapital sozialeko dimentsio handiei elkartuta ageri da.

Euskal AEk 22 pertsona inguruko batezbestekoa dauka (22,47 zehazki), senide eta lagunak tartean. Horiek *sare zabala* osatzen dute, bizikidetzako famili unitatea osatzen duten pertsonak eta komunikazio erregularra daukaten gainerako senide eta lagunak batuta. Batez besteko kopuru honek ez dauka aldakuntza handirik aldagai soziodemografikoen arabera (hau da, galdekatutako pertsonen lurraldea, sexua edo adina), ezta klase sozialaren, ikasketa mailaren, inkestaren hizkuntzaren edo lanbidearen arabera ere. Ordea, badaude ezberdintasunak beste aldagai batzuen arabera, hala nola jarduera (pentsiodunen sare zabala 19,74 kidekoa da, eta ikasten ari direnena, 24,14 kidekoa), jaioterria (atzerriko pertsonen sare zabala 19,72 kidekoa da), egoera zibila (alargunen, bananduen edo dibortziatuen kasuan sare zabala 19,46 kidekoa da) eta batez ere familiaren tamainaren eta famili motaren arabera: pertsona bateko familiek 18,66 kideko sare zabala dute. Familian bizi ez direnek, hau da, jende establezimendu kolektiboetan bizi direnek, 14,77 kideko sare zabala dute.

*Hurbileko sarea* deritzonari erreparatzen badiogu, hau da, harreman hurbilagoa eta estuagoa daukaten senide eta lagunen sarea, dozena bat kide baino ez dira (12,54 zehazki). Berriro, aldagai soziodemografikoek aurreko kasuaren antzeko eragina daukate; halere, jaioterria da kasu honetan gehien baldintzatzen duena: atzerritarren hurbileko sarea da txikiena (10,20 kide)[4].

[4] Ameriketako Estatu Batuetan egindako hainbat azterlanek adierazten dute hurbileko sare hau, «elkarrizketa sare nuklearra» ere deritzona (Marsden, 1987), zahartzearekin batera murrizten dela. Ez dago ezberdintasun nabarmenik emakume eta gizonen artean. Unibertsitateko titulazioa daukaten pertsonen elkarrizketa sare nuklearrak ikasketa gutxiago duten pertsonenak baino ia bi aldiz handiagoak dira (Christakis eta Fowler, 2010: 32).

Un cuarto de las personas cuenta con una red de tamaño bajo (0-14), la mitad con una de tamaño medio (15-29) y el resto con una de tamaño alto (30 y más). Si nos fijamos en este último grupo, vemos que varía mucho con las variables de tipo de hogar y relación con la actividad, pero también con otras; así, la clase social alta y media-alta presenta un 26,6% de tamaños altos de red, frente al 18% de la baja, los nacidos en el extranjero tienen red de tamaño alto sólo en el 14,3% frente al 26,5% de los nacidos en Bizkaia y el 24,5% de los de Álava y los asalariados eventuales el 17,2% frente al 28,2% de los empresarios.

Las relaciones presenciales son, en cualquier caso, muy superiores a las *relaciones personales mediante internet y otras redes virtuales* (4,21), aunque éstas aumentan sensiblemente entre los estudiantes (5,78) y los más jóvenes (5,77).

Como ya se ha indicado, la ECS-07 es la única investigación de este tipo realizada hasta el momento en la C.A. de Euskadi, de manera que carecemos de una perspectiva temporal que nos permita considerar esta cuestión de las relaciones sociales en clave diacrónica. Otras encuestas realizadas por Eustat en distintos años, como la de Condiciones de Vida, nos permiten una aproximación indirecta a algunas cuestiones abordadas por la ECS-07. Tan sólo, a modo de complemento, la Encuesta de Condiciones de Vida (ECV) nos ofrece una visión de la evolución de las relaciones familiares y sociales en la C.A. de Euskadi a lo largo de dos décadas, desde la primera ECV de 1989 hasta la última realizada por el momento en 2009 (Tabla 2)[5].

La presencia de las relaciones familiares en la C.A. de Euskadi es alta: el 96% de las familias mantiene algún tipo de relación con la familia próxima, relaciones que son descritas como «intensas» en el 88% de los casos. También es relativamente alta la relación con otros familiares: el porcentaje de familias que mantienen relaciones intensas se ha incrementado en 14 puntos en los últimos 20 años.

Donde más cambios se han producido es en las relaciones con amigos. En este caso, las relaciones intensas se han incrementado en 20 puntos porcentuales entre 1989 y 2009, disminuyendo sensiblemente el porcentaje de familias que dice mantener relaciones de amistad esporádicas o nulas.

[5] Para profundizar en los datos de la ECV, ver el capítulo sobre «Condiciones de vida y bienestar social» incluido en esta publicación.

Pertsonen laurden batek sare txiki bat dauka (0-14 pertsona), erdiak ertaina (15-29) eta gainerakoek tamaina handia (30 edo gehiago). Azken talde horri erreparatuz gero, ikusiko dugu famili mota eta jarduera oso aldagai garrantzitsuak direla, baina besteak ere bai. Adibidez, gizarte klase altuko eta ertain-altuko pertsonen % 26,6ak sareko tamaina handia dute; klase baxukoen artean, berriz, % 18ak. Atzerrian jaiotakoen artean, tamaina handiko sarea % 14,3ak soilik du; Bizkaian jaiotakoen artean, % 26,5ak, eta Araban jaiotakoen artean % 24,5ak. Aldi baterako lanpostua dutenen artean, % 17,2 dira, eta enpresaburuen artean, % 28,2.

Harreman presentzialak, nolanahi ere, *Internet eta beste sare birtual batzuen bidezko harreman pertsonalak* (4,21) baino askozaz ere ugariagoak dira, baina ikasleen artean (5,78) eta gazteenen artean (5,77) gehiago dira.

Adierazi dugunez, KSI-07 orain arte Euskadin egin den honelako ikerketa bakarra da. Beraz, ez daukagu denborazko ikuspegirik, gizarte harremanen gai hau diakronikoki aztertu ahal izateko. Eustatek beste urte batzuetan egindako inkestei esker, hala nola, bizi baldintzen inkesta, zeharka hurbildu ahal gara KSI-07ak ikertutako gai batzuei. Osagarri moduan, bizi baldintzen inkestak (BBI) Euskal AEko famili eta gizarte harremanen bilakaeraren bi hamarkadatako ikuspegia eskaintzen digu, 1989ko lehenbiziko BBItik 2009. urtera arte, urte horretan egin baitzen azkena (2. taula)[5].

Famili harremanen presentzia handia da Euskal AEn: familien % 96ak nolabaiteko harremana dauka hurbileko familiarekin. Harreman horiek «intentsuak» dira kasuen % 88an. Gainera, beste senide batzuekin ere harreman estua dago: harreman intentsuak dituzten familien portzentajea 14 puntu gehitu da azken 20 urteetan.

Lagun arteko harremanetan izan da aldaketa gehien. Kasu honetan, harreman intentsuak ehuneko 20 puntu gehitu dira 1989 eta 2009. urteen artean. Lagun arteko harremanak noizean behin edo inoiz ere ez dituztela dioten familien portzentajea asko gutxitu da.

[5] BBIaren datuetan sakontzeko, ikusi «Bizi baldintzak eta gizarte ongizateari» buruzko kapitulua, urtekari honetan sartu dena.

*Familias de la C.A. de Euskadi, por el grado de relaciones que mantienen con familiares, amigos y vecinos (%)*

2

***Euskadi AEko familiak, senideekin, lagunekin eta auzokoekin dituzten harremanen mailaren arabera (%)***

| | 1989 | 1994 | 1999 | 2004 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Hurbileko familiarekin** / Con la familia próxima | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Estuak** / Intensas | 69,1 | 75,0 | 82,1 | 88,0 | 87,7 |
| **Maiz** / Frecuentes | 19,9 | 18,5 | 12,6 | 6,3 | 6,2 |
| **Noizean behin** / Esporádicas | 6,6 | 3,8 | 1,9 | 1,1 | 1,7 |
| **Bat ere ez** / Ninguna | 4,4 | 2,6 | 3,4 | 4,7 | 4,4 |
| **Beste senide batzuekin** / Con otros familiares | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Estuak** / Intensas | 14,6 | 17,3 | 21,8 | 26,6 | 28,4 |
| **Maiz** / Frecuentes | 28,7 | 29,1 | 33,8 | 33,7 | 31,9 |
| **Noizean behin** / Esporádicas | 38,3 | 35,5 | 32,1 | 25,2 | 22,2 |
| **Bat ere ez** / Ninguna | 18,4 | 18,1 | 12,4 | 14,4 | 17,5 |
| **Lagunekin** / Con amigos | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Estuak** / Intensas | 51,5 | 51,7 | 68,5 | 64,1 | 71,8 |
| **Maiz** / Frecuentes | 26,8 | 25,3 | 21,0 | 18,9 | 15,7 |
| **Noizean behin** / Esporádicas | 10,5 | 12,0 | 7,1 | 6,7 | 4,1 |
| **Bat ere ez** / Ninguna | 11,2 | 11,0 | 3,4 | 10,3 | 8,4 |
| **Auzokideekin** / Con vecinos | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Estuak** / Intensas | 80,8 | 84,9 | 85,7 | 85,0 | 79,7 |
| **Maiz** / Frecuentes | 4,9 | 4,3 | 6,6 | 5,1 | 3,7 |
| **Noizean behin** / Esporádicas | 1,7 | 0,8 | 1,5 | 1,1 | 1,2 |
| **Bat ere ez** / Ninguna | 12,6 | 10,0 | 6,2 | 8,8 | 15,5 |

**Iturria: Eustat. Bizi Kondizioen Inkesta (BKI).**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida (ECV).

En cuanto a las relaciones con vecinos, si bien no se producen modificaciones demasiado sustanciales a lo largo de las dos décadas contempladas por la ECV, la relevancia que este tipo de relaciones tiene desde la perspectiva del capital social nos lleva a llamar la atención sobre el hecho de que el porcentaje de familias que declaran no tener ningún tipo de relación de vecindad haya aumentado en casi 10 puntos desde 1999, tras haber experimentado un fuerte descenso en la década anterior (Gráfico 4).

Bizilagunekiko harremanei dagokienez, BKIak aipatzen dituen bi hamarkadetan zehar ez da oso sakoneko aldaketarik gertatu, baina honelako harremanek kapital sozialaren ikuspegitik daukaten garrantzia dela-eta, datu bati erreparatu behar diogu: auzokideekin inolako harremanik ez daukatela dioten familien ehunekoa ia 10 puntu gehitu da 1999tik, aurreko hamarkadan beherakada handia izan ondoren (4. grafikoa).

*Familias que declaran no mantener ninguna relación familiar, de amistad o vecinal (%)*

4

***Familiako, lagun arteko edo auzokideekiko harremanik ez daukatela adierazten duten familiak (%)***




**Iturria: Geuk egina, Bizi Kondizioen Inkestan (Eustat) oinarrituta.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta de Condiciones de Vida (Eustat).

Volviendo a la ECS-07 y teniendo en cuenta sólo las relaciones de amistad, se ha considerado en la encuesta la *homogeneidad o heterogeneidad de la red de amigos*. Para la población en su conjunto la homogeneidad toma un valor medio de 6 lo que significa que casi dos tercios de las personas sólo tienen amigos que son iguales a ellos en cuanto a creencias religiosas, nacionalidad, posición social o tendencia política. En sentido inverso, puede verse que las redes más heterogéneas las tienen sobre todo los nacidos en el extranjero (4,5), junto a los universitarios (4,73) y los directivos y profesionales (4,91). En el extremo opuesto, con redes más homogéneas se encuentran las personas pensionistas (7,77), quienes tienen 65 años o más (7,65), quienes realizan labores del hogar (7,31), quienes tienen estudios primarios o menos (7,28) o las personas jubiladas (7,09).

La homogeneidad de la red de amigos aparece asociada positivamente a dimensiones tales como la reciprocidad, la cooperación, la cohesión social, la confianza en las instituciones, la seguridad o la influencia personal, y negativamente al tamaño de las redes, a la ayuda en sus distintas expresiones (tanto la prestada y recibida como la relacionada con diversas circunstancias), la confianza general, la independencia personal, la participación social y política, el uso de internet y el sentimiento de felicidad y salud.

Como hemos señalado anteriormente, el tamaño de las redes de las que formamos parte aparece como una variable claramente asociada a las distintas dimensiones del capital social consideradas (Tabla 3). El tamaño mayor tanto de la red amplia como de la red próxima se relaciona directamente con la prestación y la recepción de ayuda (en este caso sólo la

KSI-07ra itzuliz, eta lagun arteko harremanak soilik kontuan izanik, inkestan *lagun arteko sarearen homogeneotasuna edo heterogeneotasuna* izan dira kontuan. Biztanleentzat, osotasunean, homogeneotasunak 6ko batez besteko balioa dauka. Horrek esan nahi du pertsona guztien ia bi herenek beren lagunek sinesmen erlijioso berak, nazionalitate bera, posizio sozial bera edo joera politiko bera dauzkatela. Alderantziz, sare heterogeneoenak atzerrian jaiotakoek (4,5), unibertsitarioek (4,73) eta zuzendariek eta profesionalek (4,91) dauzkate. Beste muturrean, sare homogeneoagoekin, hauek daude: pentsiodunak (7,77), 65 urtetik gorakoak (7,65), etxeko lanak egiten dituztenak (7,31), lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenak (7,28), eta erretiratutako pertsonak (7,09).

Lagunen sarearen homogeneotasuna zenbait dimentsiorekin positiboki elkartuta dago: elkarrekikotasuna, lankidetza, gizarte kohesioa, erakundeenganako konfiantza, segurtasuna edo eragin pertsonala. Beste batzuekin, aldiz, negatiboki lotuta dago: sareen tamaina, laguntza haren modu guztietan (bai emandako laguntza eta jasotakoa, bai inguruabar ezberdinekin zerikusia duena), konfiantza orokorra, independentzia pertsonala, parte hartze sozial eta politikoa, Interneten erabilera, eta zoriontasun eta osasun sentimendua.

Arestian esan dugunez, parte hartzen dugun sareen tamaina aintzat hartu ditugun kapital sozialaren dimentsioekin zerikusi argia duten aldagaia da (3. taula). Sare zabalaren eta hurbileko sarearen tamaina handiagoak zuzeneko zerikusia du laguntza ematearekin eta jasotzearekin (kasu honetan hurbileko sarean bakarrik), laguntza mota ezberdinak eskuratzearekin, elkarrekikotasunarekin eta lankidetzarekin, konfiantza-

red próxima), con el acceso a los distintos tipos de ayuda, la reciprocidad y la cooperación, la confianza, el sentimiento de felicidad, la participación, etc. El tamaño de las redes de las que formamos parte es, realmente, un «capital» que los individuos poseemos y que podemos activar tanto en nuestro beneficio (ayuda, felicidad, independencia personal) como en beneficio de la colectividad (confianza, participación).

rekin, zoriontasun sentimenduarekin, parte hartzearekin etab. Parte hartzen dugun sareen tamaina, zinez, norbanakoek daukagun «kapitala» da, eta geure mesedetan (laguntza, zoriontasuna, independentzia pertsonala) nahiz taldearen mesedetan (konfiantza, parte hartzea) aktibatu ahal dugu.

*Población de 15 y más años por indicadores de tamaño de red amplia y próxima según dimensiones del capital social (medias)*

3

***15 urtetik gorako biztanleria, sare tamaina handiko eta hurbileko sareko tamainako adierazleen arabera, kapital sozialaren dimentsioak kontuan izanik (batezbestekoak)***

